



25 Aizurrak, kolorezko paperak, kola, margoak...
 behar zituen guziak hartu zituen. Hemendik moztu,
 han margotu, hor kolorezko paperak lotu... horra gure
 kartoi puska, kometa ederra bilakatzen ari.
 Eneko bere buruaz franko kontent zen azkenean eta halako
 ametsa sortu zitzaion: "Eta orain hegaldatu behar duzu zeruan.
 30 Bihar goizean ikusiko dugu nola ibiltzen zaren."
 Biharamunean, Eneko goizik jaiki zen. Bere kometa ederra ezti-
 ki hartu zuen eta etxetik atera zen. Karrikan, lagunak ikusi zituen:
 Mikela, Mikel, Andoni eta Lukas.
 35 – Hau kometa pollita ! Goazen hortxeko pentzera, airean nola
 ibiltzen den ikusi behar dugu.
 – Hemendik ! **Muino** horren gainetik botako dugu.
 Kometak aldiz bere buruarekin :
 – Ederki ! Haizetxo honi esker gora eta gora joanen naiz zeruraino.
 Igandea zen egun hartan, haur anitz jostatzen ari zen kanpoan.
 40 Kometari ohartu eta, hurbildu ziren.
 Haurrek jostailua ikusi nahi zuten, eta hunkitu ere. Gure kometa,
 berriz, **harro** eta alai zegoen.
 Enekok erran zuen :
 – Hea ! Bazter zaitezte eta airaraz dezagun kometa !
 45 Kometa zuhaitz handien gainetik airatu zen. Kolorezko paperak
 haizeak ibiltzen zituen dantzan han, zeruan.
 – Gorago ! Gorago ! – zioten haurrek.
 Haur guziek, zerura begiratzen zuten, zoraturik.

Muino: mendi tontor.

harro: alegera eta burua
gora.